


IRABAZI ITURRIAK



Gure proiektua aurrera eramateko, beharrezkoak ditugu diru iturriak. Gure jarduerak hiru diru iturri ditu: garrantzitsuena, gure produktuaren salmenta izango da, hau da, bateriadun ontzien salmentatik lortzen duguna. Bigarren diru iturria, harpidetzetatik lortutakoa izango da, gure bezeroak harpidetzen badira eta erositako ontziarekin arazorenbat izaten badu, 6 hilabeteko garantia izango du bezeroak. Azken diru iturria, online jarririko publizitatetik datorrena izango da.

DIRU SARRERAK



Gure diru sarrerarik handiena ontzien salmentarekin izango dugu. Publizitatearekin eta harpidetzekin berriz, diru sarrera marginalak lortuko ditugu. Honen ondorioz, publizitate eta harpidetzen sarrerak oso txikiak dira ontzien salmentarekin alderatuz eta grafikoan ez dira bereiztu ere egiten.

Bezeroak modu honetan ordainduko du: ordainketa bakarra, salmenta momentuan eta zenbateko osoaz.

Gure bezero potentziala bazkaltzeko tuper ontziak erabiliko dituzten ikasleak eta langileak izango dira.

Hauek dira urtean espero diren diru sarrerak ontzi bakoitzaren salmenta prezioa 30€ izango delarik. Kontuan izanda hasiera batean Goierriin salduko dugula, gure salmentak aurreikusteko bertako enpresa eta ikastetxeetan oinarrituko gara:

- 50 ikasle x 5 eskola goierriin = 250 ontzi salduak.
- 50 irakasle x 5 eskola goierriin = 250 ontzi salduak.
- Goierriko enpresetan = 2000 ontzi salduak.

Ondorioz, guztira, $2500 \text{ ontzi} \times 30\text{€} = 75.000\text{€}$ /urteko diru sarrerak.

Bestelako diru sarrerak:

- 2500 erosle horietatik 1700 harpidetu egingo direla kalkulatzeko dugu, beraz, $1700 \times 0,25\text{€} = 425\text{€}$ ko diru sarrera izango dugu urtean.
- Publizitate banerak gure sare sozialetan urtean 4300 baner $\times 0,10 = 430\text{€}$ ko diru sarrera publizitatetik.

GUZTIRAKO DIRU SARRERA GORDINAK URTEAN 75.855€
(deskontuak kontuan hartu gabe)

DESKONTUAK



Prezioak finakoak izango dira:

- Merkatu segmentuaren araberako prezioa: ikasleei deskontua egingo zaie %10, hau da, 3€ ontziko. $250 \text{ ikasle} \times 3\text{€} = 750\text{€}$ ko deskontuak urtean.
- Bolumenaren araberako prezioa: 10 ontzi erosteagatik %20eko deskontua; 6€koa. $10 \text{ bezero} \times 6\text{€} = 60\text{€}$ ko deskontua urtean.

GUZTIRA DIRU SARRERA GARBIAK (deskontuak kenduta) = $75.855 - (750 + 60) = 75.045\text{€}$ /urtean.